

1/2022 EBAZPENA, urtarrilaren 13koa, Debagoieneko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Debagoieneko ESiko Farmaziako Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren

AURREKARIAK

Debagoieneko ESiko zuzendari gerentearen maiatzaren 3ko 150/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Debagoieneko ESiko Farmaziako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko uztailaren 7ko EHAA 133. zk. eta 2021eko uztailaren 16ko BOE 169. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2021eko abuztuaren 6an amaitu zen.

Debagoieneko ESiko zuzendari gerentearen abuztuaren 25eko 249/2021 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Debagoieneko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Farmaziako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Arrasaten, 2022ko urtarrilaren 13a.

Debagoieneko ESIko zuzendari gerentea,
LUISA M^a DIEZ AZURMENDI



Debagoieneko ESI
OSI Alto Doba

Zuzendari Gerentea
Directora Gerente

I. ERANSKINA

DEBAGOIENeko ESI-KO FARMAZIAKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENeko LANPOSTUA ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Saioa Domingo Echaburu andrea.

Baztertuak:

- Inor ez

II. ERANSKINA

DEBAGOIENEKO ESI-KO FARMAZIAKO ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: Jose Agustin Agirre Aranburu jn.

Ordezkoa: Ana Calvo Aguirre and.

Lehenengo batzordekidea

Titularra: Blanca Segurola Lazaro and.

Ordezkoa: Ricardo Samper Ochotorena jn.

Bigarren batzordekidea

Titularra: Maria Olatz Ibarra Barrueta and.

Ordezkoa: Maria Pilar Bachiller Cacho and.

Hirugarren batzordekidea

Titularra: Carlos Martinez Martinez jn.

Ordezkoa: Ana Victoria Aguirrezabal Arredondo and.

Laugarren batzordekidea (IVAPek izendatua)

Titularra: Maria del Carmen Ariz Arnedo and.

Ordezkoa: Monike de Miguel Cascon and.

Idazkaria

Titularra: M^a Pilar Sanchez Garduño and.

Ordezkoa: Esther Litago Sola and.